

# BERRIA



## Sagardotegien saria 'Egunkaria'-ri

Hernani, Astigarraga, Usurbil eta Urnietako sagardotegiek saria eman zioten atzo *Egunkaria*-ri «sagardotegien alde egindako lanagatik». *Sagarrondotik* jaialdiaren barruan antolatutako ekitaldia izan zen. Joxe Felipe

Auzmendi izan zen aurkezlea, eta *Egunkaria*-ren ordezkari lanak Pilar Mendibilek, Xabier Lekuonak eta Joan Mari Torrealdaik egin zituzten. Torrealdaik Iñaki Uriaren egoera salatu zuen, eta, *Egunkaria*-ri buruz, «txikia»

eta «bertakoa» zela esan zuen, «sagardoa bezala». Eta biak, «*New York Times* eta *Coca-Colaren*» kontrakoak direla nabarmendu zuen. Bigarren saria Errealak jaso zuen, «sagardoa atzerrian ezagutarazteagatik». JON URBE/ARGAZKI PRESS.